# Francisco Lopez Alen jaunari

## OROIPENA, BERE ERIOTZAREN BIGARREN URTE MUGAN

DONOSTIARTASUNA illuntzen, amaitzen dijuala esagutzen degun bakoitzian, donostiar benetako artzaz gogoratzen gera.



Ez zan gure lagun atsegin arren biyotzian, onlako illuntasunik, onlako lañurik sortu. Beti pizkor, bizi, portitz azaldu zuben donostiartasun bikain eta sutsua.

Orain bai, beñere baño biarraguak gintuzkeala, egiazko, biyotz biyotzeko, donostiar benetakuak.

Gogoraturik beraz Pako-tzas, sutu dedilla donostiar biyotzetan, gure erri maitatiaren ganako chinpart bizi ta sutsua.

Saya gaitian ura bezin donostiarrak izaten, eta arrek bezela maite dezagun gure erri ederra, bere oitura gogoangarriakin. Lopez Alen-en izena beti goguan iruki biar degu, anai batena bezela; ta bere eriotzako bigarren urte mugan eskeñi biar dizkiogu gure otoitz biyotzekuak.

EUSKAL-ERRIA